– Egindako km ..............................0,960000 euro
– Itxaronaldia, orduko..................24,00 euro

(*) Tarifa hau igandetan eta Autonomia Erkidegoko eta Tokiko araudian jaiegun diren egunetan aplikatuko da, bai eta larunbatetan. Tarifa hau 22:00etatik 07:00etara ere aplikatuko da.

*Bigarrena.–* Ebazpen honek 2008ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Ebazpen honek administrazioko bidea amaitzen du; beraz, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabete biko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 13a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.

– Km recorrido ..............................0,960000 euros.
– Hora de espera .........................24,00 euros.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados.

*Segundo.–* El presente Acuerdo entrará en vigor el 1 de enero de 2008.

Contra esta Resolución que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de esta jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de diciembre de 2007.

El Presidente de la Comisión de Precios de Euskadi,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.

## INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

## 7358

220/2007 DEKRETUA, abenduaren 4koa, Uraren Euskal Agentziaren Erabiltzaileen Batzarra arautzen duena.

Ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen Euskadiko ur-politika bideratzeko tresna nagusi gisa. Lege horrek bere 11. artikuluan zehazten ditu Uraren Euskal Agentzia gobernatu, kudeatu eta aholkularitza-lanetako organoak.

Lege horren 11.4 artikuluaren arabera, Erabiltzaileen Batzarra da Agentzian parte hartzeko organoa, eta Eusko Legebiltzarreko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko, uren arloan eskumenak dituzten beste administrazioetako eta erabiltzaileen komunitateko ordezkariek osatuko dute.

Artikulu horretan zehaztuta dago ere, Erabiltzaileen Batzarra erregelamendu bidez ezarriko dela; Legearen Hirugarren Azken Xedapenak ezartzen duenez, berriz, erregelamendu horiek Eusko Jaurlaritzak onartu beharko ditu legea indarrean sartzen den egunetik hasi eta urtebeteko epean.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

## 7358

DECRETO 220/2007, de 4 de diciembre, de la Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua.

La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, crea la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua como instrumento central para llevar a cabo la política del agua en Euskadi. El artículo 11 de dicha ley determina los órganos de gobierno, gestión y asesoramiento de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua.

De acuerdo con el artículo 11.4 de la Le, la Asamblea de Usuarios es el órgano de participación de la Agencia y estará integrada por miembros elegidos en representación del Parlamento Vasco, de la Administración Autónoma del País Vasco, de las administraciones con competencia en materia de aguas y de las comunidades de usuarias y usuarios.

Añade el mismo artículo que la composición de la Asamblea de Usuarios «se establecerá reglamentariamente» y la Disposición Final Tercera de la ley determina que dicho desarrollo reglamentario deberá ser aprobado por el Gobierno Vasco en el plazo de un año contado a partir de la entrada en vigor de la ley.

Ondorioz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa erabakiarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluak 2007ko uztailaren 12ko bilkuran egindako txostena eta gainerako nahitaezko txostenak, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko abenduaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Dekretu honen xedea da Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua-ren uraren euskal agentziaren erabiltzaileen batzarraren osaera eta jardunerako erregimena arautzea. Organo hori, ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legearen 11. artikuluan finkatzen da.

*2. artikulua.–* Erabiltzaileen Batzarraren eraketa.

Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Aguaren Erabiltzaileen Batzarra honako kideek osatuko dute:

a) Lehendakaria: Ingurumen arloko eskumenak dituen sailburua.

b) Lehendakariordea: Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua atxikita dagoen Euskal Herriko Administrazio Orokorraren Saileko lehendakariorde maila duena.

c) Kideak:

– Eusko Legebiltzarrak izendatutako bi pertsona.

– Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Aguako zuzendaria.

– Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izango diren sailburuorde mailako hiru pertsona, ondorengo arloetan eskumena duten sailek izendatuak: ogasuna, osasuna eta garraioa.

– Foru aldundi bakoitzeko ordezkaria izango den diputatu bana.

– Kide bat, ur arloan eskumena duen ministerioko ordezkari gisa.

– Bi pertsona Lurralde Historiko bakoitzekoan dauden hornikuntzako erakundeetako ordezkari gisa.

– Kide bat, EUDELek izendatutakoa, tokiko administrazioen ordezkari gisa.

– Zazpi kide erabiltzaileen ordezkari gisa, horrela: bat, lurralde historiko bakoitzeko erakunde hornitzaileen izenean ordezkari bana; industria erabiltzaileen ordezkari bat; energia erabiltzaileen ordezkari bat; neka-

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, previo informe del Consejo del Agua del País Vasco en su reunión del 12 de julio de 2007 y demás preceptivos, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 4 de diciembre de 2007,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

El objeto del presente Decreto consiste en regular la composición y régimen de funcionamiento de la asamblea de usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua, creado el artículo 11 por la Ley de aguas.

***Artículo 2.–*** Composición de la Asamblea de Usuarios.

La Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua estará integrado por las y los siguientes miembros:

a) Presidente o presidenta: el Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de medio ambiente.

b) Vicepresidente o vicepresidenta: una persona con rango Viceconsejera o Viceconsejero del Departamento de la Administración General del País Vasco al que esté adscrita la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua.

c) Vocales:

– Dos personas designadas por el Parlamento Vasco.

– El Director o Directora de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua.

– Tres personas con rango de viceconsejera o viceconsejero, en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma, designadas por los Departamentos competentes en materia de hacienda, sanidad y transporte.

– Una persona, con rango de Diputado, o Diputada, en representación de cada una de las Diputaciones Forales.

– Una persona en representación del Ministerio competente en materia de aguas.

– Dos personas en representación de las entidades suministradoras radicadas en cada uno de los Territorios Históricos.

– Una persona en representación de las administraciones locales que serán designada por EUDEL.

– En calidad de usuarias siete personas: una en representación de las entidades suministradoras radicadas en cada uno de los Territorios Históricos, una en representación de los usuarios industriales, una en represen-

zaritza erabiltzaileen ordezkari ba; eta erabiltzaileen eta kontsumitzaileen erakundeen ordekari bat.

*3. artikulua.–* Batzarkideak izendatzea.

1.– Erakundeek izendatuko dituzte Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Aguan euren ordezkariak izango diren batzarkideak; batzarkidea eta ordezkoa izendatu beharko dituzte.

2.– Euskal Herriko Administrazio Orokorreko eta Foru Aldundietako ordezkarien ordezkoak zuzendari maila izango dute gutxienez.

3.– Hornikuntzako erakundeetako ordezkariak erakundeek beraiek aukeratuko dituzte.

*4. artikulua.–* Lehendakaria.

Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Aguaren Erabiltzaileen Batzarreko lehendakariari dagokio:

a) Organoaren goreneko ordezkaritza bere gain hartzea.

b) Batzarraren ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdiak erabakitzea eta aztergaiak zehaztea; kontuan izango ditu Batzarreko gainerako kideek Dekretu honen 8.2 artikuluari jarraituz egin ditzaketen eskaerak.

c) Batzarraren bilkuretako buru izatea, eta oro har, bilkurak egoki gara daitezen behar duen gaitasuna erabiltzea.

d) Bozketetako berdinketak erabakitzea kalitatezko botoaren bidez.

e) Beste pertsona batzuei Batzarreko bilkuretara joateko baimena ematea, aztertuko diren gaiak direla medio, pertsona horiek bertaratzea egoki irizten zaionean.

f) Erabiltzaileen batzarreko gai-zerrendan berariaz udal batean edo udal-talde batean eragina duten gaiak sartzen direnean, alkateari edo alkate interesdunen ordezkariari deitzea.

g) Organoaren aktak eta hartutako erabakien ziurtagiriak ikusi eta onestea.

h) Organoaren jardunean Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea.

i) Batzarreko lehendakari gisa bere gain dituen beste edozein funtzio.

*5. artikulua.–* Lehendakariordea.

Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Aguaren Erabiltzaileen Batzarreko lehendakaria falta denean edo gaixorik dagoenean, lehendakariordeak ordezkatuko du, lehendakariaren funtzioak bere gain hartuz.

tación de los usuarios energéticos, una en representación de usuarios agrícolas y una en representación de las asociaciones de consumidores y usuarios.

*Artículo 3.–* Designación de miembros de la Asamblea.

1.– Las y los miembros de la Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua serán designados por las instituciones y órganos a los que representan, los cuales deberán designar tanto una persona titular como una persona suplente.

2.– Las personas designadas en representación de la Administración General del País Vasco y de las Diputaciones Forales como suplentes deberán tener rango mínimo de Directores o Directoras.

3.– Las personas designadas en representación de las entidades suministradoras lo serán por las instituciones a las que representen.

*Artículo 4.–* Presidencia.

Corresponde a la Presidencia de la Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua:

a) Asumir la superior representación del órgano.

b) Acordar la convocatoria ordinaria o extraordinaria de las sesiones de la Asamblea y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones formuladas por los demás miembros de la Asamblea formuladas de acuerdo al artículo 8.2 del presente Decreto.

c) Presidir las sesiones de la Asamblea, dirigir las deliberaciones y, en general, ejercitar las facultades precisas para el adecuado desarrollo de las sesiones.

d) Dirimir los empates con voto de calidad.

e) Autorizar la asistencia de otras personas a las reuniones de la Asamblea si su presencia se juzga conveniente por la naturaleza de los asuntos a tratar.

f) Convocar al alcalde o representante de los alcaldes interesados cuando en el orden del día se incluyan asuntos que afecten de modo específico al municipio o grupo de municipios.

g) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos de la Asamblea.

h) Garantizar el uso de los idiomas oficial de Comunidad Autónoma de Euskadi en el funcionamiento del órgano.

i) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a su condición.

*Artículo 5.–* Vicepresidencia.

Corresponde a la Vicepresidencia sustituir a la Presidenta o Presidente de la Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua, en caso de ausencia, o enfermedad, asumiendo sus funciones.

*6. artikulua*.– Erabiltzaileen Batzarreko kideak. Eginkizunak.

Erabiltzaileen Batzarreko kideei dagokie:

a) Saioetara joan eta eztabaidetan parte hartzea.

b) Batzarreko bilkuretarako deia eta aztergaien zerrenda gutxienez 48 ordu aurretik jasotzea.

c) Bilkuran landuko diren aztergaiei buruzko informazioa gutxienez 48 ordu aurretik eskura izatea.

d) Batzarrari egoki deritzen proposamenak egitea.

e) Dekretu honen 8.2. artikuluan aurreikusten den ekimenaz baliatzea.

f) Aldeko edo aurkako botoa ematea; gehiengoarekin bat datorren ala bat ez datorren boto partikularra eman ahal izango du.

g) Batzarkideak ez diren beste pertsona batzuk bertaratzeko proposamenak egitea.

h) Elkargo ofizial bateko kideek izan ditzaketen gainerako egitekoak.

*7. artikulua*.– Batzarreko idazkaria.

1.– Erabiltzaileen idazkaria, hitz egin bai baina botoa emateko eskubiderik gabe, lehendakariak izendatutako Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua-ko legelari bat izango da.

2.– Idazkariari dagokio:

a) Lehendakariak agindutako bilkuretarako deiak eta batzarkideei zitazioak egitea.

b) Gaiak bideratzeko prestatzea, Batzarraren bilkurako aktak idaztea eta akta horien fede ematea.

c) Batzarraren kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak egitea.

d) Batzarrean izapidetzen diren espediente guztiak sustatu eta horien jarraipena egitea.

e) Batzarrak garatu dituen jarduerei buruzko agiriak artxibatu eta zaintzea.

f) Batzarkideek egindako komunikazioak eta, beraz, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo bere ardurapean egon behar duten bestelako idazkiak jasotzea.

g) Lehendakariak eskatutako nahiz bere karguari dagozkion kudeaketa eta koordinazio ekintzak gauzatzea.

3.– Bera kanpoan nahiz gaixorik izanez gero, lehendakariak izendatutako Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua-ko legelari batek ordezkatuko du.

*Artículo 6*.– Miembros del Asamblea de Usuarios. Funciones.

Corresponde a las y los miembros de la Asamblea de Usuarios:

a) Asistir a las sesiones y participar en los debates.

b) Recibir con antelación mínima de 48 horas la convocatoria de las reuniones de la Asamblea, conteniendo el orden del día.

c) Tener a disposición de la información sobre los temas que figuren en el Orden del Día, con una antelación mínima de 48 horas.

d) Presentar a la Asamblea las propuestas que estimen oportunas.

e) Ejercer la iniciativa prevista en el artículo 8.2 del presente Decreto.

f) Emitir su voto, expresando el sentido del mismo, así como formular voto particular concurrente o discrepante con el parecer de la mayoría.

g) Proponer la presencia de personas no miembros en la Asamblea.

h) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de miembros de un órgano colegiado.

*Artículo 7*.– Secretaría de la Asamblea.

1.– La Secretaría de la Asamblea de Usuarios, con voz y sin voto, corresponde a un letrado o letrada de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua designada por la presidencia.

2.– Corresponde a la Secretaría:

a) Efectuar la convocatoria de las sesiones por orden de la presidencia, así como las citaciones a las y los miembros de la Asamblea.

b) Preparar el despacho de los asuntos, redactar y autorizar las actas de las sesiones de la Asamblea.

c) Expedir certificaciones de las consultas, los dictámenes y los Acuerdos de la Asamblea.

d) Impulsar y realizar el seguimiento de cuantos expedientes se tramiten en la Asamblea.

e) Archivar y custodiar los documentos en que consten las actuaciones desarrolladas por la Asamblea.

f) Recibir los actos de comunicación de las y los miembros de la Asamblea y, por tanto, de las notificaciones, las peticiones de datos, rectificaciones o cualesquiera otra clase de escritos de los que debe tener conocimiento.

g) Realizar cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por la presidencia, o le sean propios del cargo.

3.– En los casos de ausencia o enfermedad se sustituirá por la persona que designe el presidente o presidenta de entre las letradas y los letrados de la Agencia Vasca del Agua.

*8. artikulua.–* Erabiltzaileen Batzarrak jarduteko erregimena.

1.– Erabiltzaileen Batzarra ohiko bilkuratan elkartuko da gutxienez urtean behin. Erabiltzaileen Batzarra edozein unetan bildu ahal izango da hala ere, ezohiko bilkuran bertako lehendakariak hala erabakitzen badu edota kideen erdiek eskatzen badute.

2.– Ezohiko bilkuretara dei egiteko eskaera idatziz egingo da eta aztertu nahi gaiak arrazoitu egingo dira. Horrelakoetan, eskabidea jaso ondoko hamabost egunetarako egin beharko du batzordeburuak ezohiko osoko bilkurarako deia. Gai zerrendak eskatu diren puntuak jasoko ditu nahitaez; hala ere, batzordeburuak beste puntu batzuk ere sartu ahal izango ditu.

3.– Erabiltzaileen Batzarraren bilerak baliozkoak izango dira lehendakaria eta idazkaria, edo horien ordezkoez gain, kideen erdia eta bat gehiago bertaratzen direnean.

4.– Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Lehendakariak berdinketak erabakitzeko kalitatezko botoa izango du.

5.– Eguneko aztergaietan ez dagoen gai bati buruz ezin izango da baliozko erabakirik hartu, harik eta batzarkide guztiak bertan izan eta gehiengoak gai larria delako aldeko botoa ematen ez badu.

6.– Bilkura bakoitzaren akta egingo da, eta bertan jasoko da bilkuran parte hartu duten pertsonak, bilkura egin den tokia eta eguna eta iraupena; aztertu diren gai garrantzitsuenak eta hartutako erabakiak.

7.– Aktak idazkariak izenpetuko ditu lehendakariak onetsi ondoren eta bilkura berean edo hurrengo bilkurak onartuko dira.

8.– Batzarkideren batek eskatzen badu, aktan jasoko da erabakiaren aurka emandako botoa, abstentzioa eta horien arrazoiak edo erabakiaren alde eman duen botoaren esanahia.

9.– Kideek boto partikularra eman dezakete idatziz, gehiengoaren erabakiarekin bat ez badatoz; hori egiteko berrogeita zortzi ordu izango dituzte, eta onartutako testuan jasoko da.

10.– Erabiltzaileen Batzarrak xedapen hauez gain beste neurri osagarri batzuk har ditzake bere jardunerako.

XEDAPEN GEHIGARRIA

***Lehenengoa.–*** Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua-ren administrazio-batzordea osatu behar duten pertsonak izendatzeko kontuan izango da gaitasun, trebetasun eta prestakuntza egokia duten ema-

*Artículo 8.–* Régimen de Funcionamiento de la Asamblea de Usuarios.

1.– La Asamblea de Usuarios se reunirá, de manera ordinaria, al menos una vez al año. En cualquier momento, la Asamblea de Usuarios de la Agencia puede reunirse de manera extraordinaria por decisión de la presidencia o a petición de la mitad de sus miembros.

2.– La solicitud de convocatoria de sesiones extraordinarias se tiene que realizar por escrito y ha de contener la propuesta motivada de los asuntos a tratar. En este caso, la presidencia convocará la reunión extraordinaria dentro de los quince días siguientes al de la solicitud y el orden del día incluirá necesariamente los puntos solicitados, pudiendo la Presidenta o el Presidente adicionar otros.

3.– Las reuniones de la Asamblea de Usuarios quedarán válidamente constituidas cuando, además de su Presidente o Presidenta y de su Secretario o Secretaria o quienes les suplan, estén presentes la mitad más uno de sus miembros.

4.– Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos, teniendo la presidencia voto de calidad para dirimir los empates.

5.– No se podrán tomar acuerdos válidos respecto de los nuevos asuntos no incluidos en el orden del día, salvo que en la reunión estén presentes todas y todos los miembros de la Asamblea y sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría.

6.– De cada sesión se levantará acta que contendrá la indicación de las personas que hayan intervenido, así como las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de la deliberación, la forma y resultados de la votación y el contenido de los acuerdos.

7.– Las actas son firmadas por el Secretario o Secretaria con el visto bueno de la presidencia, y se aprobarán en la misma o en la siguiente sesión.

8.– En el acta figurará, a solicitud de las y los miembros de la Asamblea, el voto contrario al acuerdo adoptado, su abstención y los motivos que la justifiquen o el sentido de su voto favorable.

9.– Los y las miembros que discrepen del acuerdo mayoritario podrán formular voto particular por escrito en el plazo de 48 horas, voto que se incorporará al texto aprobado.

10.– La Asamblea de Usuarios podrá adoptar normas de funcionamiento complementarias de las presentes disposiciones.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.–*** En el nombramiento y designación de las personas que han de formar parte de la Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua se promoverá una presencia equilibrada de

kume eta gizonezkoen arteko oreka bultzatzea, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunerakoaren, 23. artikuluan ezarritakoa betez.

*Bigarrena.–* Organo honen funtzionamenduan euskararen erabilera arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak ezartzen duena bermatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko abenduaren 4an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Segunda.–* Se garantizará el cumplimiento de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera en el seno de este órgano.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de diciembre de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio.
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

**7359**

221/2007 DEKRETUA, abenduaren 4koa, Uraren Euskal Agentziaren Administrazio-Kontseilua arautzen duena.

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen Euskadiko ur-politika bideratzeko tresna nagusi gisa. Lege horrek bere 11. artikuluan zehazten ditu Uraren Euskal Agentzia gobernatu, kudeatu eta aholkularitza-lanetarako organoak.

Legearen 11.5 artikuluaren arabera, Administraziokontseilua da Agentziaren gobernurako organoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Lurralde Historikoetako Foru Aldundiek ordezkari kopuru bera izango dute.

Artikulu horretan zehaztuta dago ere, Administrazio-kontseilua erregelamendu bidez ezarriko dela; eta Legearen hirugarren azken xedapenak ezartzen duenez, erregelamendu horiek Eusko Jaurlaritzak onartu beharko ditu legea indarrean sartzen den egunetik hasi eta urtebeteko epean.

Ondorioz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren erabakiarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluak 2007ko uztailaren 12ko bilkuran txostena egin eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko abenduaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**7359**

DECRETO 221/2007, de 4 de diciembre, del Consejo de Administración de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua.

La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, crea la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua como instrumento central para llevar a cabo la política del agua en Euskadi. El artículo 11 de dicha Ley determina los órganos de gobierno, gestión y asesoramiento de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua.

De acuerdo con el artículo 11.5 de la Ley, el Consejo de Administración es el órgano de gobierno de la Agencia, que contará con representación paritaria de la Administración General del País Vasco y de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos.

Añade el mismo artículo que la composición del Consejo de Administración «Se establecerá reglamentariamente» y la Disposición Final Tercera de la Ley determina que dicho desarrollo reglamentario deberá ser aprobado por el Gobierno Vasco en el plazo de un año contado a partir de la entrada en vigor de la Ley.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, previo informe del Consejo del Agua del País Vasco en su reunión del 12 de julio de 2007 y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 4 de diciembre de 2007,